

Udaberriko binakako eskupilota jaialdia ospatu dute hezkuntzako ikasleek

2016/05/12

Maiatzaren 11an, eguerdiko 13:30etan jokatu da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko udaberriko binakako eskupilota jaialdia. Guztira 6 bikote aritu dira jo eta ke Eskoriatzako udal pilotalekuan. Partiduei dagokienean, giroan nabaritu da partaideak pilota gosez etorri direla frontoira eta horrela, tanto ederrak bezain gogorrak jokatu ditzuzte. Amaitzean dutxa eder bat hartu eta luntxa izan dute partaideek, jaialdiaren nondik norakoak partekatu eta indarberritzeko.

Bi aste barru laurdiko beste pilota jaialdi bat antolatuko da. Orduan ere frontoi giroa sortuko dela seguru!



HUHEZI. Udaberriko binakako eskupilota jaialdia 15/16